

# 10 iraultza modernoak



ARITZ GALARRAGA

**H**amar zutabe pasa behar izan dira, hamar, zutabe hauei izena eman diona, Stefan Zweig, zutabe hauetan aipatzeko –eta ziur naiz ez dela azken aldia izango–. Zweig, esango nuke, ez dago aurkeztu beharrik; soilik gogorarazi euskaraz irakurri ahal dizkiogula hiru eleberrri: *Xake nobela* (Alberdania, 1999), *Emakume ezezagun baten gutuna* (Igela, 2005) eta *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* (Igela, 2007). Baina, fikziozko lanek baino, haren memoriak eduki naute azken egunotan katigatuta, *Die Welt von Gestern* izenekoak, atzoko mundua.

Eta bertan irakurritakoen artean, gauza bat eduki dut azken egunotan bueltaka. 1934ko otsailean lehertu zen Austriako gerra zibila, motza, lau egunekoa, baina ehunka hildako eragin zituen. Eta Zweig Vienan egon arren, gerra haren epizentroan, aitortzen du ez zuela ezer ikusi, ez zuela ezer jakin. New York, Londres edo Pariseko biztanle batek informazio gehiago izango zuela, prentsaren bitartez, berak baino. Hori omen iraultza modernoaren singularitasuna, hirien espazio neurrigabearen gertatzen direla, eta, hartara, biztanleen gehiengoarentzat erabat oharkabearen pasatzen direla. Harago doa Zweig: “Garaia zehazten duten mugimendu nagusiak hastapenetan ezagutzeko aukera ukatzen die historiak garaikidei”. Are lurraldekidei.

Bizi naizen herrialdeko egoera politikoa bero jartzen ari dela jakiten dut, jaiotzen herrialdeko jendea hasten zaidanean deika, galdezka, espantuka. Telebista, irrati, egunkari, lagun-etxeokoe ere, maizago deitzen dutelako konturatzen naiz zerbait pasatzen ari dela hemen. Baina badakit orduan ez dutela nigatik egiten, ez dutela nola nagoen jakiteko deitzen, haiengatik baizik, historiak ukatzen dien hori ezagutu nahi dutelako. Ulertzekoa da. Jarrai dezatela deitzen, beraz, nahiz iraultza modernoak –halakorik balego beti– nerontzat ere, edo batez ere, oharkabearen pasatzen diren. ●



## “ERAKUTSI DUGU BESTE MOTA BATEKO JAIK MARTXAN JAR DAITEZKEELA IRUÑEAN”

### JAI HERRIKOIEN ALDEKO GORA IRUÑEA! PLATAFORMA

Plataformak amaitutzat eman du bere ibilbidea. “Hamar urte baino gehiago eman ditugu jai herriko, parte-hartzaile, euskaldun eta feministen alde lanean. Erakutsi dugu ilusioz eta ahaleginez, talde lanetik, beste mota bateko jaiak martxan jar daitezkeela Iruñean. Edalontzi berrirabilgarria jai guztietan sartzea lortu dugu. Lan garrantzitsua egin da herri mugimendua kontzientziazten gure jaietan gertatzen diren eraso sexistak kudeatzeko... Kontziente gara lan asko geratzen dela egiteko”, eta erreleboa espero dute. **2019/10/21**

